Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

3816

EBAZPENA, 2009ko ekainaren 10ekoa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, izendapen askez honako kargu hauek betetzeko deialdi publikoa iragartzeko dena: Osalaneko Zuzendaritza Nagusiko zuzendariorde teknikoa, Plangintzako zuzendariordea eta Administrazio, Antolaketa eta Giza Baliabideetako zuzendariordea.

Osalaneko Zuzendaritza Nagusiko zuzendariorde tekniko, Plangintzako zuzendariorde eta Administrazio, Antolaketa eta Giza Baliabideetako zuzendariorde lanpostuak bete beharra dagoenez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.a artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (1989ko uztailaren 28ko EHAA), eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak aldeko irizpena eman ondoren, ebazpen honetan zehazten diren lanpostuak izendapen askez betetzeko deialdia iragartzea erabaki du erakunde honek.

OINARRIAK

Lehenengoa.– Lanpostuetan aritzeko eskakizunak betetzen dituzten karrerako funtzionarioek eska ditzakete ebazpen honen bidez iragartzen diren lanpostuak.

Bigarrena.– Parte hartu nahi dutenek Osalaneko Zuzendaritza Nagusira bidali beharko dituzte eskabideak, eta bertan euren datu pertsonalak eta gaur egun duten destinoa zehaztu beharko dituzte. Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Hirugarrena.– Hautagaiek, idazkiarekin batera, «currículum vitae» aurkeztu beharko dute, datu hauek jasoko dituena:

a) Titulu akademikoak.

b) Administrazio publikoan eta, hala badagokio, enpresa pribatuan, betetako lanpostuak.

c) Egindako ikasketen eta ikastaroen berri, dakizkien hizkuntzak eta, oro har, hautagaiaren ustez adierazgarriak izan daitezkeen bestelako merezimenduak.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

3816

RESOLUCIÓN de 10 de junio de 2009, de la Directora General del Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales/Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (Osalan), por la que se anuncia convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, de los puestos de Subdirector/a Técnico, Subdirector/a de Planificación y Subdirector/a de Administración, Organización y Recursos Humanos de la Dirección General de Osalan.

Siendo necesaria la provisión de los puestos de Subdirector/a Técnico, Subdirector/a de Planificación y Subdirector/a de Administración, Organización y Recursos Humanos de la Dirección General de Osalan y conforme a lo dispuesto en el artículo 46.2.a) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca (BOPV de 28 de julio de 1989) y previo informe favorable de la Dirección de Función Pública, este organismo autónomo acuerda anunciar la provisión, por el procedimiento de libre designación, de los puestos de trabajo que se relacionan en la presente Resolución,

BASES

Primera.– Los puestos de trabajo que se convocan a través de la presente Resolución podrán ser solicitados por el personal funcionario de carrera que reúna los requisitos exigidos para el desempeño del mismo.

Segunda.– Los/as interesados/as dirigirán sus solicitudes, en las que harán constar sus datos personales y destino actual, a la Dirección General de Osalan, dentro del plazo de quince días hábiles contados a partir del día siguiente a la fecha de publicación de la presente Resolución en el BOPV.

Tercera.– Los aspirantes deberán acompañar a su escrito un «currículum vitae» en el que harán constar:

a) Títulos académicos.

b) Puestos de trabajo desempeñados, tanto en la Administración Pública como, en su caso, en la empresa privada.

c) Estudios y cursos realizados, conocimientos de idiomas y cuantos otros méritos estimen los aspirantes oportuno manifestar.

Hautagaiek, aurrekoez gain, lanpostua betetzeko beharrezkoak diren eskakizunak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte. Halaber, nahi beste argitalpen, txosten edo bidezko iritzitako edozein agiri aurkeztu ahal izango dituzte.

Laugarrena.– Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez ebatziko da deialdi hau. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, gehienez ere hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita.

Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du; hala ere, bere aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Bi kasuetan, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da epea kontatzen.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Barakaldo, 2009ko ekainaren 10a.

Osalaneko zuzendari nagusia,
PILAR COLLANTES IBÁÑEZ.

A la citada solicitud deberán los aspirantes adjuntar además, la documentación justificativa de los requisitos exigidos y de los méritos alegados. Así mismo, podrán los aspirantes acompañar, en todo caso, cuantas publicaciones, informes o cualesquiera otros documentos estimen oportunos.

Cuarta.– La Resolución de la presente Convocatoria se llevará a cabo mediante Resolución de la Directora General de Osalan, publicada en el BOPV, en el plazo máximo de un mes a contar desde el día siguiente al de la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Contra la Resolución de la convocatoria, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el mismo órgano en el plazo de un mes o recurso contencioso-administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses, ambos plazos contados desde el día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el BOPV.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Barakaldo, a 10 de junio de 2009.

Directora General de Osalan,
PILAR COLLANTES IBÁÑEZ.

ERANSKINA

Deialdiko lanpostuak:

1.– Izena: Zuzendariorde teknikoa (512006 kodea – 3. dotazioa)

– Lantokiaren udalerria: Barakaldo.

– Taldea: A.

– Maila: 29.

– Berariazko osagarria: 32.181,42 euro.

– Hizkuntza-eskakizuna: 4, derrigortasun-datarik gabe.

2.– Izena: Plangintzako zuzendariordea (512006 kodea – 4. dotazioa)

– Lantokiaren udalerria: Barakaldo.

– Taldea: A.

– Maila: 29.

– Berariazko osagarria: 32.181,42 euro.

– Hizkuntza-eskakizuna: 4, derrigortasun-datarik gabe.

3.– Izena: Administrazio, Antolaketa eta Giza Baliabideetako zuzendariordea (512006 kodea – 5. dotazioa)

– Lantokiaren udalerria: Barakaldo.

– Taldea: A.

– Maila: 29.

– Berariazko osagarria: 32.181,42 euro.

– Hizkuntza-eskakizuna: 4, derrigortasun-datarik gabe.

Lanpostuan aritzeko eskakizunak:

– Administrazioaren goi mailako kidegokoa, goi mailako teknikarien kidegokoa edo edozein herri administraziotako A taldeko langile izatea.

– Jarduneko zerbitzuan aritzea, Euskal Autonomia Erkidegoko, euskal toki eta foru administrazioetako, beste autonomia erkidego batzuetako administrazioko edota Estatuko Administrazioko karrerako funtzionario legez.

– Halaber, zerbitzu berezietan, seme-alabak zaintzeko eszedentzian eta gainerako herri administrazioetan zerbitzu-aldian dauden funtzionarioek, bai eta nahitaezko edo borondatezko eszedentzian edo egitekoez gabeturik daudenek ere, parte har dezakete lehiaketan, betiere egoera horietarako jarritako iraupen-aldia beteta badute eta lehenago aipatutako kidegoetakoak badira. Prozedura hauen bidez jarduneko zerbitzura itzuliko dira.

ANEXO

Puestos de trabajos convocados:

1.– Denominación: Subdirector/a Técnico (Código 512006- Dotación 3)

– Localidad de destino: Barakaldo.

– Grupo: A.

– Nivel: 29.

– Complemento específico: 32.181,42 euros.

– Perfil Lingüístico: 4, sin fecha de preceptividad.

2.– Denominación: Subdirector/a de Planificación (Código 512006- Dotación 4)

– Localidad de destino: Barakaldo.

– Grupo: A.

– Nivel: 29.

– Complemento específico: 32.181,42 euros.

– Perfil Lingüístico: 4, sin fecha de preceptividad.

3.– Denominación: Subdirector/a de Administración, Organización y Recursos Humanos (Código 512006- Dotación 5)

– Localidad de destino: Barakaldo.

– Grupo: A.

– Nivel: 29.

– Complemento específico: 32.181,42 euros.

– Perfil Lingüístico: 4, sin fecha de preceptividad.

Requisitos para su provisión:

– Pertenecer al Cuerpo Superior de la Administración, o al Cuerpo Superior Facultativo, o ser personal del grupo A de cualquier Administración Pública.

– Hallarse en situación de Servicio Activo como funcionario/a de carrera de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, Administraciones Locales y Forales Vascas, Administración de las Comunidades Autónomas o en la Administración General del Estado.

– Así mismo podrán concurrir, reingresando al Servicio Activo a través de estos procedimientos, los/as funcionarios/as de carrera pertenecientes a los Cuerpos citados que se encuentren en situación de servicios especiales o excedencia para el cuidado de hijos, servicios en otras Administraciones Públicas y los suspensos, excedencia forzosa o voluntaria, siempre que hubieran cumplido el tiempo de permanencia establecido para tales situaciones.